

# Iparraldea berpizten

Laborantza lurren galera, bizitza eta identitatea galdu duten herriak, lanaren bidez irabazitako diruarekin bertan bizitzeko ezintasuna... Lurraren espekulazioaren ondorioz, herritarrek, batez ere gazteek bizi duten egoera latza da Ipar Euskal Herrian. Hori salatu asmoz sortu zen Lurra eta Etxebizitza kolektiboa.

| LIDE HERNANDO |

LURRAREN ARAZOARI erantzuna emateko duela 40 urte abiatutako borrokaren oinorde-tza hartu du 2007. urtean sortutako kolekti-boak. “*Euskal Herria ez da salgai: lurra defenda dezagun* lelopean, auto-formazioa, auto-kudeaketa eta auzolana oinarri dituen gazte langile talde bat gara”, dio Xabier Tubal Abrisketa kideak. Gehiengo gaztea izateak badu bere arrazoiak: azken finean, horiek dira euren lurraldean lana lortzeko eta bizitzeko zailtasun gehien dituztenak, baita borrokan aritzeko grina handiena dutenak ere.

Helburu orokorra, egoera hau aldarazteko indarra duten talde eragile sozioekonomikoekin harremanetan jarri eta, epe luzera, eragile talde bakarra sortzea da, “zeinak arazoei benetako soluzioak proposatuko dizkion”, Abrisketaren hitzetan. Horretarako, antolakuntzan bi talde bereizten dituzte: bat salaketa ekimenak antolatu eta burutzeaz arduratzen dena, eta bestea hausnarketaz eta eragileekin harremanetan jartzeaz. “Bilkura luzeak egiten ditugu, eta horietan eztabaida sakonak edukitzen ditugu, auto-formazioa kolektiboaren oinarri sendoa baita. Arazo horri aurre egiteko, nola eta zergatik sortu zen jakin behar dugu lehenbizi”, dio Iker Goiñenetxe kolektiboko kideak.

### “Kostaldea ez da gehiago bertako biztanleentzat”

Horiek Baionako etxebizitza agentzia batekoek esandako hitzak. “Kanpotarrentzat luxuzko etxebizitzak eraikitzea inbertsio hobea dela ikusi du Frantziako Estatuak, eta horren ondorioz, gaur egun Iparraldean 50.000 etxe huts eta bigarren etxebizitza daudela kalkulatu da”, zehaztu digu Abrisketak. Aurreikuspenek diote, gainera, 2020rako beste 45.000 etxe eraikiko direla. “Frantziako Estatuaren planifikazioan, iparraldea industria gunea da, eta hegoaldea erretiro goxoa edukitzeko zonaldea”.

Zerbitzu sektorearen gorakadaren aurrean, Euskal Herrian pisua galtzen ari da laboran-



tza. “Horrek esan nahi du bertan ekoizten dugun janaria ez dugula guk jaten, eta gainera, guk kontsumitzen duguna kanpotik ekarria da”. Zerbitzuetan sortutako lanpostu gehienak kostaldean daudenez, barnealdeko herrietako gazteek bertara joan beste erremediorik ez dute. Ondorioz, herriak hustu egiten dira eta bertako etxeak kanpotar aberatsek erosten dituzte, “lotarako herri” bilakatuz. Bizia eta identitatea galtzen dute, azken batean.

### Salaketa

Kolektiboak udaldia baliatzen du salaketa ekimenak antolatzeko, jende gehien eta, batez ere, kanpotar gehien dagoen bolada. “Besteak beste, aspalditik hutsa zegoen etxe bat ireki eta egun batez kanpotarrei bertan bisita gidatua egin genien”, dio Goiñenetxek. “Donibane Lohizunen goi-mailako agentzia bat okupatu eta beste hamalau itxiarazi genituen. Beste behin, bigarren etxebizitza duen familia batekin hitz egin nahi izan genuen. Batez ere, arazoa zein den azaltzeaz arduratzen gara”.

Lurraren prezioaren igoera oztopatzea eta kanpotarrak bertako ekonomian inberti dezaten kontzientziatu: horiek dira Lurra eta Etxebizitza kolektiboaren bi ardatz nagusiak. ■

